LAN MERKATUAREN BALANTZEA 2018

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

2018

Erakunde autonomiaduna EUSKO JAURLARITZA
Organismo Autónomo del GOBIERNO VASCO
Lanbide

Txosten honetan EAEko lan-merkatuak 2018. urtean izan dituen gertaera nagusiak aztertzen dira, haren aldagai garrantzitsuenen portaera kontuan hartuta. Lan-merkatuari lotuago dauden administrazio-iturriak hartu dira kontuan (Gizarte Segurantzako afiliazioa, erregistratutako langabezia eta kontratuen erregistroa), baita biztanleen lan-jarduera neurtzen duten eragiketa estatistiko nagusiak ere (Estatistikako Institutu Nazionalaren – EIN- Biztanleria Aktiboaren Inkesta – BAI - eta Eurostat-en Labour Force Survey-ko datu batzuk)

Aurkibidea

Testuinguru Ekonomikoa 4
Lanbiden erregistratutako langabezia 5
Gizarte Segurantzako afiliazioa 7
Kontratatutako pertsonak eta kontratuak 8
Enplegua EINren eta BAIren arabera 10
Langabezia EINren BAIren arabera 12
Eranskina- Taulak 14

Testuinguru Ekonomikoa

2018ko laugarren hiruhilekoan, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Barne Produktu Gordinak (BPG) urte arteko %2,4ko hazkundea izan du; 2019 urte osoari dagokionez %2,3ko hazkundea aurreikusten da

Eustat-en arabera, 2018ko laugarren hiruhilekoan **EA-E**ko BPGak urte arteko % 2,4ko hazkundea izan du aurreko urteko hiruhileko berdinarekin alderatuz. Erregistratutako tasa aurreko hiruhilekoan baino 2 hamarren baxuagoa izan da (% 2,6). Beraz, jadanik hiru epealdi kateatu dira hazkunde txikiagoak jasoz, moteltze joera leun bati jarraituz.

Laboral kutxak osatzen duen EAEko familien konfiantza indizea 3an kokatu zen 2018ko laugarren hiruhilekoan. Datu horrek adierazlearen susperraldia erakusten du. Konfiantza indizearen batez besteko balioa 2018ko lau hiruhilekoetan 1 izan zen, aurreko urteko emaitza berdinduz. Serieak egonkortasuna erakusten du aurreko urteetako ezkortasunetik urrundu diren balioetan. Datu globalaren oinarrian, ekonomia orokorraren norabideaz duten konfiantza eta lan merkatuaren etorkizuneko bilakaeraz duten baikortasuna daude. EAEko familien ustez, ekonomiaren egoera ona da, nahiz eta hazkunde erritmoa geldotuko dela aurreikusten duten.



Iturriak: Eustat, EIN, Eurostat, "Koiuntura DI-DA batean 2019ko martxoa" txostenak

Europako Ekonomiari dagokionez, Eurostatek argitaratu dituen azken datuek adierazten dute Eurogunea % 1,2 hazi zela 2018ko azken hiruhilekoan, urte arteko tasan. Beraz, urte osoko hazkundea % 1,8 izan zen, 2017koa baino sei hamarren txikiagoa. Tasa hori 2014tik BPGak izan duen txikiena da. Bizitasun apalago hori eremuko ekonomia nagusietan nabaritu zen.

Espainia berriro izan zen herrialde dinamikoena eremuko bost ekonomia handienen artean. Hain zuzen ere, ekonomia espainiarra % 2,4 hazi zen iazko azken laurdenean eta egonkortasuneko joera garbia erakutsi zuen. Estatistika Institutu Nazionalaren (EIN) arabera, iazko urte osoan eskuratu zuen %2,5eko hazkundea eskari nazionalak ekarritako 2,9 puntuen ondorioa da. Ekarpen horrek 2017koa berdindu zuen. Aitzitik, kanpo eskariak lau hamarren kendu zizkion BPGren gorakadari. Enpleguari dagokionez, Espainian % 2,6ko urte arteko erritmoan hazi zen 2018ko laugarren hiruhilekoan, hots aurreko hiruhilekoan baino hamarren bat gehiago. Guztira, lanaldi osoko 463.000 lanpostu baliokide sortu zituen.

Etorkizunerako aurreikuspenen arabera, hazkunde ekonomikoaren moteltze arin bat aurreikusten da. Hurrengo taulan ikus daitekeen bezala, Consensus Forecast-ek 2019. urterako Eurogunerako egindako aurreikuspena %1,3koa da. Nazioarteko Diru Funtsak (NDF) Espainiarako egindako aurreikuspena altuagoa da, % 2,2.

Euskadiri dagokionez , Ogasun eta Ekonomia Saileko Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak % 2,3ko hazkundea aurreikusten du 2019. urterako.



Iturriak: Eustat, EIN, Eurostat, Ogasun eta Ekonomia Saila: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza, NDF, Consensus Forecast, "Koiuntura DI-DA batean 2019ko martxoa" txostena

Lanbiden erregistratutako langabezia

2018. urtean erregistratutako langabeen kopurua %6,2 jaitsi da EAEn. Nabaria da Eraikuntza sektoreak izan duen bilakaera ona, bai gizonen bai emakumeen artean (-% 13,8 eta -%13,5 hurrenez hurren).

Azken 5 urteetan gertatu den moduan, 2018an ere behera egin du EAEn erregistratutako langabeen kopuruak. Azken urteetako beherazko joera mantendu da. Hala ere, jaitsiera-erritmoa moteldu egin da: 7.873 langabe gutxiago zenbatu dira 2018an; 8.626 gutxiago 2017an; 13.844 gutxiago 2016an; eta, azkenik, 15.754 gutxiago 2015ean. Autonomia Erkidegoan artean, bilakaera onena Melillan (-% 9,9) eta Gaztela-Leonen (-% 9,6) izan da; okerrena, berriz, Kantabrian (-% 2,5) eta Kanariar Uharteetan (-% 4,2). EAE hamargarren postuan kokatzen da, langabezia jaitsiera erlatibo txikiena izan duten Autonomia Erkidegoen artean (-% 6,2).



Iturria: Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa

Sexuaren arabera. Seigarren urtez jarraian, langabeziak bilakaera hobea izan du gizonen artean (-% 6,6) emakumeen artean baino (-% 5,9).

Sektorearen arabera. Termino erlatiboetan, bilakaera onena Eraikuntzaren sektorean gertatu da, bai gizonen artean, bai emakumeen artean (-% 13,8 eta -% 13,5, hurrenez hurren). Gizonen artean, langabeziaren desberdintasun txikiena Industriaren sektorean gertatu da (-% 3,4); eta emakumeen artean, berriz, Zerbitzuen sektorean (-% 6,0).

Jardueraren arabera. Batetik, ondorengoak dira bilakaera onena izan duten jarduerak: (i) Txikizkako merkataritza (-757); (ii) Eraikuntza berezitako jarduerak (-669); (iii) Eraikinen eraikuntza (-639); (iv) Janari- eta edari-zerbitzuak (-545); eta, azkenik, (v) beste jarduera profesional, zientifiko eta tekniko batzuk (-409). Bestetik, bilakaera okerrena izan duten jarduerak hauek izan dira: (i) Ibilgailu motordunen, Atoien eta erdi-atoien fabrikazioa (+164); (ii) Enpleguarekin lotutako jarduerak (+50); (iii) Kautxuzko eta plastikozko produktuen fabrikazioa (+34); eta, azkenik, Koke-lantegiak eta petroliozko finketa (+24). Halaber, bilakaera ona antzematen da krisialdian zehar gogor zigortutako jardueretan: batez ere, Eraikuntzarekin lotutako jardueretan, gehi Ostalaritza- eta merkataritza-zerbitzuekin zerikusia duten beste jarduera batzuetan ere.

Adinaren arabera. Beheko taulan ikus daitekeen bezala, langabeziaren bilakaerarik onena 35-44 urte bitarteko biztanleek izan dute (-% 10,9); ondoren, 25-34 urte bitartekoek (-% 9,0); jarraian, 45-54 urtekoek (-% 5,9); eta, azkenik, 55-64 urtekoek (-% 1,6). Beste muturrean, berriz, 16-24 urteko pertsonen kolektiboak izan du bilakaerarik txarrena (+% 5,2).



Iturria: Analisi, Estatistika eta Azterlan Zerbitzua. Lanbideren kabinete Teknikoa

Lurralde historikoen arabera. 2017ko datuekin alderatuta, Gipuzkoak izan du eboluzio onena 2018an (-% 6,8), ondoren Bizkaiak (-% 6,5) eta Arabak (-% 4,1). **Eskualdeka**, nabarmentzekoa da, kopuru absolutuetan, langabeen kopuruak behera egin duela (i) Bilbon (-1.678); (ii) Ezkerraldean (-1.348); eta (iii) Vitoria-Gasteizen (-762). Hala ere, kopuru erlatiboetan, aipatzekoak dira (i) Arabako Mendialdea (-% 12,2), Urola Garaia (-% 10,7) eta Tolosaldea (-% 9,1). Eta langabeen kopuruak gora egin du bakarrik Gorbeialdean (+% 19,2) eta Lea-Artibain (+% 1,3).

Jasotako prestazioaren arabera. Erregistratutako langabeen % 29,3k langabezia-prestazioa kobratzen du (2017an baino portzentajezko puntu 1 gehiago). Prestazioa kobratzen duten langabeen % 59,9k kotizaziopeko prestazioa jasotzen du (aurreko urtean baino portzentajezko 2,4 puntu gehiago); eta gainerako % 40,1ek subsidioa edo GEA jasotzen du (aurreko urtean baino 2,4 puntu gutxiago).

Langabeziaren iraupenaren arabera. Iraupen laburreko langabetuen kopurua gutxiago murriztu da (-% 2,5) iraupen luzeko langabetuena baino (-% 9,5). 2017ko balantzean, bi langabezi-moten murrizketa-erritmoaren arteko aldea txikiagoa izan zen (iraupen laburra -% 5,6 eta iraupen luzea -% 6,9). Urte batetik bestera, iraupen luzeko langabeziaren jaitsierak 2,6 puntu egin du gora. 2018. urtearen amaieran, iraupen luzeko langabeen kopurua 61.103 izan da; iraupen laburreko langabeen kopurua, berriz, 58.571 izan da.

Nazionalitatearen arabera. Langabeen % 15,9k atzerriko nazionalitatea du (2017ko datua baino ehuneko 0,4 puntu txikiagoa). Azken urtean zehar, bertako langabeen kopuruak % 5,8 egin du behera; eta atzerriko langabeen kopuruak, berriz,% 8,0. Era berean, 2014-2018 aldiari erreparatuz gero, langabe atzerritarren beherakada txikiagoa da oraindik ere (-% 23,0) langabe autoktonoena baino (-% 28,7). Hala ere, murrizketa-portzentajeen arteko aldea murriztu egin da 2017ko balantzearekin alderatuta (-% 16,3 langabe, atzerritarren artean; eta -% 24,2 langabe, autonomoen artean). EAEko biztanle langabetuen artean, atzerritarren kolektiboak pisu handia du, kontuan hartuta biztanleria osoaren % 7,0 izan dela 2018an (2017an baino ehuneko 0,2 puntu gutxiago), Eustatek argitaratutako biztanleen udal-estatistikaren arabera. Nagusiki bi arrazoi nagusi daude azaltzeko LANBIDEn izena emanda dauden atzerritarren presentzia handia: (i)bata, beharrezkoa da enplegu-eskatzaile gisa izena emanda egotea DSBE bezalako laguntzak eskuratzeko, EAEn ezarpen handia duena; eta bestea (ii) atzerritartasuna izateak askotan zailtasuna dakar lan-merkatuan sartzeko. Atzerriko langabeen artean, Afrika iparraldeko (-630) eta Sahara hegoaldeko (-411) nazionalitatea duten langabeen kopuruak behera egin du.

Ikasketa mailaren arabera. 2018ko abenduan, langabetuen % 62,0k oinarrizko ikasketak zituen; % 17,3k Lanbide heziketako ikasketak; % 12,1ek unibertsitateko ikasketak eta gainerako % 8,7ek batxilergoko ikasketak. 2017ko datuei dagokienez, langabeen jaitsiera handiena unibertsitate-ikasketak (-% 7,9; -1.244 langabe) eta derrigorrezko ikasketak (-% 6,6; -5.212 langabe) dituzten kolektiboetan gertatu da.

Gizarte Segurantzako afiliazioa

2018an, Gizarte Segurantzako afiliazioaren kopuruak %1,9an egin du gora, aurreko urtearekin alderatuz; ia 962.104ra iritsita .

2018an zehar, afiliazioaren errekuperazioak jarraitzen du, 2014an hasita. 2018. urtearen amaieran 962.104 afiliatu zeuden, aurreko urtean baino 18.117 pertsona gehiago (+% 1,9) eta 2013. urtean baino 86.943 pertsona gehiago (+% 9,9). Hala ere, lortutako maila 2008ko uztailean afiliatutako pertsonen kopurua baino txikiagoa da (982.935), krisia hasi aurretik lortutako maximoa. Lortutako emaitza onak gorabehera, 2018ko abenduan 2008ko uztailean baino 20.831 afiliatu gutxiago daude.



Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa

Sexuaren arabera. Gizonezko afiliatuak 506.624 izan dira (2017an baino 8.182 gehiago); eta emakumezko afiliatuak, berriz, 455.480 (aurreko urtean baino 9.943 gehiago). Emakumeak afiliatuen % 47,3 dira, aurreko urtean baino hamarren bat gehiago. Krisiaren hasieran, emakumeak afiliatu guztien % 42 baino ez ziren. Krisian zehar, jarduera oso maskulinoek okerrera egin dutenez, eta lan-merkatuan emakume gehiago daudenez, gora egin du afiliatutako emakumeen proportzioak.

Jardueraren arabera. Hurrengo jarduerek izan dute bilakaera onena izan 2018an, 2017. urtearen aldean: (I) Osasun-jarduerek eta gizarte-zerbitzuek (+3.294); (ii) Hezkuntzak (+2.531); (iii) Eraikuntzak (+2.126); (iv) Manufaktura-industriak (+1.764); (v) Zientzia eta teknika arloko jarduerek (+1.673); (vi) Garraioek eta biltegiratzeak (+1.431); eta, azkenik, (vii) Ostalaritzak (+ 1.381). Beste muturrean, berriz, etxeko langileen jarduerak izan du afiliatu kopuruan jaitsiera handiena (-402).

Lurralde historikoaren arabera. 2018ko abenduan, Bizkaiak afiliatu guztien % 50,1 izan du; Gipuzkoak % 33,4; eta Arabak % 16,5. Aurreko urtearekin alderatuz, balore erlatiboetan, Gipuzkoak izan du hazkunde handiena (+% 2,1); ondoren, Bizkaiak (+% 1,9); eta, azkenik, Arabak (+% 1,5). Afiliazio hazkunde handiena izan duten jarduerak hauek izan dira. Araban: (i) Osasun-jarduerak eta gizarte-zerbitzuak (+526); (ii) Garraioak eta Biltegia (+477); eta, azkenik, (iii) Hezkuntza (+391). Gipuzkoan: (i) manufaktura-industria (+1.489); (ii) osasun-jarduerak eta gizarte-zerbitzuak (+1.230); eta, azkenik, (iii) Hezkuntza (+924). Eta bukatzeko, Bizkaian: (i) Osasun-jarduerak eta gizarte-zerbitzuak (+1.539); (ii) Eraikuntza (+1.283); eta (iii) Hezkuntza (+1.216).

Nazionalitatearen arabera. 2018an zehar, atzerritarren multzoak afiliazioaren % 6,6 suposatu du. Aurreko urteko datuen aldean, afiliatu atzerritarren kopurua % 10,0 hazi da; eta bertako afiliatuena, aldiz, % 1,4. Atzerritar afiliatuen artean, gehiago igo da gizonen kopurua (+ % 10,9) emakumeena baino (+ % 8,8). Lurralde historikoaren arabera, atzerritarren hazkunde handiena Gipuzkoak izan du (+ % 11,3); ondoren, Arabak (+ % 10,4); eta, azkenik, Bizkaiak (+ % 8,8). Bukatzeko, Europar Batasunetik kanpotik etorritako atzerritarren afiliazioa gehiago hazi da (+ % 11,8) Europar Batasunetik etorritakoena baino (+ % 6,2).

Kontratatutako pertsonak eta kontratuak

2018an, 313.547 pertsonak 1.001.181 kontratu sinatu dituzte (iaz baino %4,5 gehiago)

Kontratatutako pertsonak. 2018an zehar, 313.547 pertsonak sinatu dute EAEko lanpostu baterako kontraturen bat; alegia, 2017an baino % 5,1 gehiagok. Hazkundea handiagoa izan da emakumeen artean (+ % 5,4), gizonen artean baino (+ % 4,8). 2018an, emakumeak kontratatutako pertsonen % 47,0 izan dira (aurreko urtean baino ehuneko 0,1 puntu gehiago).

Adinaren arabera. Kontratatutako pertsona gehien biltzen dituen adin tartea 30-44 urte artekoa izan da (kontratatutako pertsona guztien % 38,7); gero, 45 urtez gorakoen tartea (% 27,1); ondoren, 25-29 urte artekoena (% 15,3); jarraian, 20-24 urte artekoena (% 14,9);eta, azkenik, 20 urte azpikoen tartea dago (% 4,1). Azken adin tarte hori izan da, hain zuzen ere kontratatutako pertsonen beherakada izan duen tarte bakarra(-4.650 pertsona; - % 26,7).

Nazionalitatearen arabera. Kontratatutako pertsonen % 15,1 atzerritarrak izan dira, % 17,0 gizonezkoen artean eta % 12,8 emakumezkoen artean. Atzerritarren artean, gehien nabarmentzen den taldea latinoamerikarrena da (% 35,3); ondoren, Europa erkidegotik nahiz erkidegoz kanpotik etorritakoak (% 27,7); eta, azkenik, Afrika iparraldetik etorritakoak (% 15,7).

Errotazio-tasa. 2018ko errotazio-tasa 3,2koa izan da. Hau da, urtean zehar kontratatutako pertsona bakoitzak 3 kontratu baino gehiago sinatu ditu batez beste: 3,0 gizonezkoen kasuan eta 3,4 emakumezkoen kasuan.

Sinatutako kontratuak. 2018an zehar, 1.001.181 kontratu sinatu dira EAEn, aurreko urtean baino % 4,5 gehiago. Sexuaren araberako banaketa oso orekatua da: kontratuen % 50 sexu bakoitzarentzat. Atzerritarrek sinatutako kontratuak kontratu guztien % 12,7 izan dira (aurreko urtekoa baino 1,5 puntu altuagoa).

Lurralde historikoaren arabera. Kontratuen % 51,6 Bizkaian sinatu dira; Gipuzkoan % 29,2; eta Araban % 19,2. Hala ere, aurreko urtearen aldean, Araban izan da hazkunde erlatibo handiena (+ % 5,4); ondoren, Bizkaian (+ % 4,4); eta, azkenik, Gipuzkoan (+ % 4,0).

Jardueraren arabera. Kontratu kopururik nagusiena ondorengo jardueretan izan da: ostalaritzan (% 16,2); manufaktura-industrian (% 14,9); jarduera administratiboetan (% 11,8); osasun jardueretan eta giza-zerbitzuetan (% 11,5); eta, azkenik, merkataritzan (% 11,0).

Okupazio taldearen arabera. Nabarmentzen dira, batetik, zerbitzuen sektoreko profil kualifikatuetarako kontratuak (% 31,1); eta, bestetik, inolako kualifikaziorik gabeko lanbide-profiletarako kontratuak ere (% 30,8). Gainerako kontratuak lanpostu hauek betetzeko sinatu dira: teknikari eta profesional zientifikoak (% 9,7); laguntzako teknikariak eta profesionalak (% 8,0); industriaren sektoreko profil kualifikatuak (% 7,6); operadoreak (% 6,5); administrazioko langileak (% 5,7); lehen sektoreko profil kualifikatuak (% 0,4); eta, azkenik, zuzendaritza-postuak (% 0,2).

Kontratu motaren arabera. Kontratu mugagabeen pisua % 8,9koa izan da (aurreko urtean baino ehuneko 1,2 puntu handiagoa). Aldi baterako kontratuen pisua, berriz, % 91,1ekoa izan da. Kontratu mugagabeei dagokienez, % 52,0 gizonenak izan dira, eta % 48,0 emakumeenak. Aldi baterako kontratuei dagokienez ere, sexuaren araberako banaketa oso parekatua izan da (kontratuen % 50,2 emakumeek sinatu dituzte). Sinatutako kontratu guztiak kontuan hartzen baditugu, % 39,9 partzialak izan dira (% 33,2 gizonek sinatuak eta % 66,8 emakumeek sinatuak).

Hurrengo grafikoan ikus daitekeen bezala, azken urtean ia egonkor mantendu da kontratazio-modalitate horren pisua (% 39,9; hots, aurreko urtean erregistratutako tasa baino 0,3 puntu txikiagoa). 2011. urtea erreferentziatzat hartzen badugu, lanaldi partzialeko kontratuen pisua ehuneko 4,8 puntu igo da (pasatu da % 35,1etik 2011.urtean, % 39,9ra 2018an).



Iturria: Analisi, Estatistika eta Azterlan Zerbitzua. Lanbideren Kabinete Teknikoa.

Zenbaki absolutuetan, 2018an, EAEn, 88.625 kontratu mugagabe sinatu dira; aldi baterako kontratuak, aldiz, 912.556 izan dira. Hala ere, k**ontratu mugagabeen** pisua baxua izateak (kontratu guztien % 8,9) ez du esan nahi kopurua murritza denik. Izan ere, kontratu mugagabeak egonkorrak izango balira, urte gutxitan aldi baterako kontratuak dituzten pertsona kopuruak behera egingo luke nabarmen. Baina hori ez da horrela, eta, kasu askotan, kontratu mugagabe bat sinatzeak ez dakar berekin enpleguaren egonkortasuna.

Hurrengo lerroetan, EAEko kontratu mugagabeak sakon aztertuko ditugu:

Adinaren arabera. Kontratu mugagabeen pisu handiena duen taldea 25-44 urte bitartekoena izan da (adin tarte horretako kontratu guztien artean, kontratu mugagabeak % 9,7 izan dira). Ondoren, 45 urtetik gorakoen taldea dago (% 9,1). Eta, azkenik, 25 urtetik azpikoen taldeak izan du kontratu mugagabeen pisurik baxuena (% 6,6).

Okupazio taldearen arabera. Kontratu mugagabeen pisurik handiena zuzendarien taldeak izan du (okupazio talde honen kontratu guztien artean kontratu mugagabeak % 63,0 izan dira). Pisu txikiena, aldiz, zerbitzu sektorean kualifikatuen artean izan da (% 7,4). Bi mutur horien artean, berriz, ondorengo perfilak ditugu: (i) administrariak (% 13); (ii) laguntzako teknikariak eta profesionalak (% 12,0); (iii) manufakturako, eraikuntzako eta meatzaritzako artisauak eta langile kualifikatuak (% 11,2); (iv) nekazaritzan eta arrantzan kualifikatutako langileak (% 10,7); (v) operadoreak (% 10,7); (vi) teknikari eta profesional zientifikoak eta intelektualak (% 9,1); eta, azkenik, eta (vii) langile kualifikatu gabeak (% 7,0).



Iturria: Analisi, Estatistika eta Azterlan Zerbitzua Lanbideren Kabinete Teknikoa..

Jardueraren arabera. Alde batean uzten baditugu 2018an zehar 300 kontratu baino gutxiago izan dituzten jarduerak, kontratu mugagabeen pisurik handiena etxeetako jardueretan izan da (% 46,1). Pisu txikiena, aldiz, jarduera hauek izan dute: lehen sektoreko jarduerek eta arte- eta jolas-jarduerek (% 3,9); eta osasun- eta zerbitzu-jarduerek (% 4,0).

Nazionalitatearen arabera. Kontratu mugagabeek pisu handiagoa dute atzerritarren artean (% 12,4), bertakoen artean baino (% 8,3). Kontratu mugagabeen % 17,8 atzerritarrek sinatu dituzte (aurreko urtean baino 0,7 puntu altuagoa). Emakume atzerritarren artean, kontratuen % 15,8 mugagabea izan da (iaz baino 0,5 puntu gehiago)

Enplegua EINren eta BAIren arabera

Iazko datuen aldean, 2018an zehar, enplegua % 1,6 hasi da, landunak 930.642 dira eta enplegu-tasa %72,0koa

2018ko laugarren hiruhilekoan, 930.642 landun zeuden (aurreko hiruhilekoan baino % 1,0 gehiago; eta aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatzen badugu, % 1,6 gehiago). Hurrengo taulan ikus daitekeen bezala, azken urteetako okupazioaren bilakaera positiboa izan da, eta 56.140 pertsona landun gehiago izan dira 2014-2018 aldian (+ % 6,4).



Iturria: Analisi, Estatistika eta Azterlan Zerbitzu. Lanbideren Kabinete Teknikoa.

Adin tartearen arabera. 2017ko datuekin alderatuta, 45-54 urteko kolektiboak izan du bilakaerarik onena termino absolutuetan (+14.300 landun). 25-34 urteko kolektiboa izan da lana duten pertsonen kopurua jaitsi duen bakarra (-4.400). 2008. urtearekin alderatuta (krisiaren hasiera), ikusten dira bi datu hauek. Bata, enplegua murriztu egin da adin-piramidearen behealdean (-145.300 okupatu, 45 urtetik behera). Eta bestea, gora egin du goialdean (+82.600 enplegu, 45 urtetik gora). Adin araberako bereizketa horrek lotura zuzena du 2008-2018 urte arteko populazioaren bilakaerarekin: 45 urte azpiko 139.000 pertsona gutxiago daude; eta 66.283 pertsona gehiago 45 urte baino gehiagokoen artean.

Landunen eta populazioaren bilakaera, adin tartearen arabera, EAEn (pertsona kop.; 2018 vs. 2008)

Adin tartea	Landunak	Populazioa
16 - 45 urte	-145.300	-139.000
>45 urte	82.600	66.283

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala

Sexuaren arabera. Enplegua gehiago hazi da emakumezkoen artean (+ 12.167), gizonezkoen artean baino (+ 2.603). Ildo horretan, hurrengo grafikoan ikus daitekeen bezala, aurreko urtean hasitako joerari jarraitzen zaio; eta emakumeen kopuruak gizonenak baino igoera handiagoa izan du. Urte honetan izandako landunen artean % 47,9 emakumezkoak izan dira (iaz baino 0,6 puntu altuagoa). Enplegu tasari dagokionez, gizonezkoena % 75,5koa da eta emakumezkoena % 68,6koa (7 puntu baxuagoa gizonezkoena baino). Hala ere, azken urtean gizonezkoen enplegu tasa 0,2 hazi da; eta emakumezkoena gehiago hasi da, alegia, 2,0 puntu.



Iturria: Analisi, Estatistika eta Azterlan Zerbitzua. Lanbideren Kabinete Teknikoa.

Lurralde historikoaren arabera. Arabak lortu du enplegu-tasarik onena (% 74,4); ondoren, Gipuzkoak (% 73,1); eta, azkenik, Bizkaiak (% 70,6). Ildo horretan, Bizkaiko enplegu tasa EAEko batez bestekoaren (% 72,0) azpitik geratu da. Gainerako lurraldeetan, berriz, enplegu-tasa EAEko batez bestekoa baino handiagoa da. Okupatuen kopuruak termino erlatibotan izan duen bilakaerari dagokionez, Arabak izan du hazkunderik handiena (+% 2,9); ondoren Bizkaiak (+ % 1,6); eta, azkenik, Gipuzkoak (+% 1,0).

Jardueraren arabera. 2018. urtearen amaieran, zerbitzu sektoreak bildu du landun guztien % 72,2; industriak % 20,8; eraikuntzak % 6,0; eta lehen sektoreak % 0,9. Aurreko urteko datuekin alderatuta, okupatutako per-

tsonen beherakada izan duen sektore bakarra industriaren sektorea izan da (-15.395). Honako sektore hauetan egin du gora pertsona landunen kopuruak: (i) Zerbitzuetan (+20.285); (ii) Eraikuntzan (+9.482); eta (iii) Lehen sektorean (+397).

Enplegu-tasa. 2018an, enplegu-tasa % 72,0koa izan da (iaz baino 1,1 puntu altuagoa, eta 2014koa baino 5,4 puntu altuagoa). EAEko tasa, estatukoa (% 67,7) baino 4,3 puntu altuago izan da. Horrela, EAEk izan du estatuko 6. tasa altuena; Errioxak izan du altuena (% 73,7) eta Extremadurak baxuena (% 58,3). EB-28ko batez bestekoarekin alderatuz, EAEko tasa 1,5 puntu baxuagoa izan da eta Euro Gunekoa baino 0,3 puntu baxuagoa.

EAEko **aldi baterako soldatapekoen tasa** % 26,5ekoa izan da, estatuko batez bestekoa baino 0,4 puntu baxuagoa. Estatuan, tasa baxuena izan duten Autonomia Erkidegoak Madril (% 20,6) eta Katalunia (% 22,1) izan dira; altuena izan dutenak, ordea, Andaluzia (% 35,4); eta Kanariar Huarteak eta Extremadura (% 33,1 bietan). Europan erregistratutako tasak EAEkoaren azpitik geratu dira: -12,5 puntu EB-28n (% 14,0) eta -10,3 puntu euro gunean (% 16,2). Sexuaren arabera, emakumezkoen tasa gizonezkoena baino 5,2 puntu altuagoa izan da; Europan, aldiz, sexuaren araberako diferentzia txikiagoa izan da (1,1 puntu altuagoa emakumezkoena).

Kontratu motaren arabera, EAEko lanaldi partzialeko enplegu tasa %16,4koa izan da (Estatukoa baino 1,6 puntu altuagoa). Aurreko urtean ez bezala, gizonen lanaldi partzialen tasa ehuneko 0,9 puntu jaitsi da. Emakumezkoen artean tasa 0,2 puntu jaitsi da. Iazko joera mantendu egiten da. Izan ere, emakumezkoen artean handiago da lanaldi partzialean dagoen landun kopurua (% 26,5) gizonezkoen artean baino (% 7,1).

Borondatezkoa ez den lanaldi partzialaren tasa (prekarietate adierazlea). EAEn, 2018an, **borondatezkoa ez den lanaldi partzialaren tasa** % 47,7koa izan da (Estatukoa baino 8,1 puntu baxuagoa). EB28an tasa % 24,8koa izan da (EAEko baino 22,9 puntu baxuagoa) eta euro gunean % 27,8koa (EAEkoa baino 19,9 puntu baxuagoa). Europa mailan, tasarik baxuenak Estonian (% 5,8), Eslovenian eta Txekian (bietan % 6,5) izan dira. Eta altuenak, aldiz, Grezian (% 70,1), Italian (% 65,7) eta Zipren (% 63,9) izan dira.

Langabezia EINren BAIren arabera

2018. urtearen bukaeran langabezi-tasa % 9,6koa izan da (puntu 1 apalagoa 2017koa baino), eta 98.656 langabe erregistratu dira Lanbiden

2018 amaieran, 98.656 langabe zeuden EAEn erregistratuta. Aurreko urtearekiko, murrizketa 9.648 pertsonakoa izan da, % 8,9 kopuru erlatiboetan. Estatuarekin alderatuz, EAE-k lehenengo postua du langabezia tasa baxuena dutenen artean, % 9,6koa. Hurrengoa Kantabriak du (% 9,7). Langabezi- tasa altuena, aldiz, Extremadurak izan du (% 25,1). Europa mailan, EAEko tasa EB-28koa baino 3,0 puntu altuagoa izan da; eta Euro Gunekoa baino 1,7 puntua altuagoa izan da.

Ondorengo grafikoan ikus daitekeen moduan, EAEko langabezia tasaren eboluzioa positiboa izan da: 2018 bukaeran erregistratutako tasa 1,0 puntu apalagoa izan da aurreko urtekoa baino; eta 2014koa baino 7,0 baxuagoa.



Iturria: Analisi, Estatistika eta Azterlan Zerbitzua. Lanbideren Kabinete Teknikoa.

Sexuaren arabera. Emakumeen artean 2.178 pertsona gutxiago daude langabezian (-% 4,2); eta gizonen artean, berriz, 7.470 gutxiago (-% 13,2). Gaur egun, langabeen % 50,0 emakumeak dira (duela urtebete kopuru hori % 47,6koa zen). Gizonen langabezia-tasa emakumeena baino baxuagoa izan da (% 9,2 eta % 10,0, hurrenez hurren). Ildo horretan, aipatu behar da azken urteko langabezia-tasaren bilakaera hobea izan dela gizonentzat (% 1,3) emakumeentzat baino (% -0,7).

Adinaren arabera. Aurreko urtearekin alderatuta, 45-54 urteko kolektiboa izan da beherakada handiena izan duena (-% 25,7; -6.900 langabe); ondoren, 35-44 urteko kolektiboa (-% 14,8; -4.400 langabe); eta, azkenik, 20-24 urteko kolektiboa (-% 8,8; -1.000 langabe). Langabeen kopuruak gora egin du adin-tarte hauetan: (i)55 urteko eta gehiagoko pertsonen multzoan (+% 8,3; +1.300 langabetu); eta (ii) 25-34 urtekoen multzoan (+% 4,4; +1.000 langabetu). Langabeen erdiek, % 45,9k, 35-54 urte dituzte; % 37,0k 35 urte baino gutxiago; eta gainerako % 17,1ek 55 urte edo gehiago dituzte.

Lurralde Historikoaren arabera. Langabezi-tasari dagokionez, Arabak du egoerarik onena (% 7,4); ondoren, Gipuzkoak (% 7,6) eta, azkenik, Bizkaiak (% 11,5). Eta 2017. urtearen aldean, bilakaera onena Araban gertatu da, non lagabezi-tasa 1,6 puntu jaitsi den. Gipuzkoan zein Bizkaian langabezi-tasa 0,9 puntu jaitsi da. Egoera hobetuz doa, baina oraindik ere bide luzea dago krisia hasi aurreko mailetara iristeko. Izan ere, 2008ko hirugarren hiruhilekoko datuekin alderatuta, erregistratutako langabezia-tasa 3,0 puntu handiagoa izan da Araban; 3,4 puntu handiagoa Bizkaian eta 2,8 puntu handiagoa Gipuzkoan.

Nazionalitatearen arabera. Atzerritarren langabezi-tasa bertakoena baino altuagoa izan da (% 25,8 vs % 8,4). Europar Erkidegotik kanpoko nazionalitatea duten atzerritarrek erregistratu dute langabezi-tasa altuena, % 29,0. Europar Erkidegoko nazionalitatea duten atzerritarrek, aldiz, % 17,1ko tasa erregistratu dute.

Azken hori izan da langabezia-tasaren igoera izan duen talde bakarra (+ehuneko 3,5 puntu aurreko urtearekin alderatuta).

Langabeziaren iraupenaren arabera. Langabeen % 42,2k 2 urte baino gehiago daramatza egoera horretan eta % 14,6k 1 eta 2 urte artean. Beraz, langabeen % 56,8 epe luzeko langabeak dira (1,1 puntu gehiago aurreko urteko portzentajea baino).

Ikasketa mailaren arabera. Langabeen % 39,5ek oinarrizko ikasketak ditu, derrigorrezko ikasketak gehienez (bertan daude ikasketa gabeak ere). Proportzio hori antzekoa da gizonen artean (% 39,6) eta emakumeen artean (% 38,9). Langabeen % 33,1ek goi mailako ikasketak ditu: % 35,7 emakumezkoen kasuan eta % 30,6 gizonezkoen kasuan. Gainontzeko % 27,3ak batxilergoko edo erdi mailako Lanbide Heziketako ikasketak ditu.

Hurrengo grafikoan ikus daitekeen bezala, langabezia-tasa handiena derrigorrezko bigarren hezkuntzara arteko ikasketak dituzten pertsonen artean eman da (ikasketarik gabeko pertsonak barne). Izan ere, lortutako tasa % 16,6 izan da (% 14,8 gizonen artean eta % 19,1 emakumeen artean). Erdi-mailako lanbide-heziketako ikasketak dituzten pertsonen artean ere, langabezia-tasa handia izan da: % 13,3 (% 12,3 gizonen artean eta % 14,5 emakumeen artean). Batxilergoko ikasketak dituzten pertsonen langabezia-tasa % 9,8koa izan da (% 10,2 gizonen artean eta % 9,2 emakumeen artean). Maila akademiko handiko pertsonek dute langabezia-tasa txikiena (goi-mailako lanbide-heziketako ikasketak edo unibertsitate-ikasketak). Izan ere, langabezia-tasa % 5,8koa da (% 5,6 gizonen artean eta % 6,1 emakumeen artean).

Prestakuntza-maila altuenetan, emakumeen langabezia-tasa gizonena baino altuagoa da. Bi hauek dira fenomeno horren arrazoi nagusiak: bata, (I) emakumeen bolumena handiagoa da maila akademikoaren goiko aldean; eta bestea, (ii) emakumeek hautatzen dituzten espezialitateak okerrago sartzen dira lan-merkatuan



Iturria: Analisi, Estatistika eta Azterlan Zerbitzua. Lanbideren Kabinete Teknikoa.

